



KOMETAK proiektuaren deialdia

Uharte Arte Garaikideko Zentroaren (Uharte, Euskal Herria) eta Zébra3ren (Bordele, Akitania Berria) arteko EGONALDI ARTISTIKO GURUTZATUAK

Izen-ematea: 2025-11-07tik 2025-12-05era arte zabalik



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

II
Huarte ZÉBRA3

Kofinantzatzailea:



KOMETAK proiektua, Uharte Arte Garaikideko Zentroaren (Uharte, Euskal Herria) eta Zébra3ren (Bordele, Akitania Berria) arteko ikerketa-egonaldi artistiko gurutzatuak dira.

Ettxepare Euskal Institutua, Huarteko Arte Garaikideko Zentroa eta Zébra3 antolatzaile gisa.

Eta Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak kofinantziatua.



KOMETAK proiektuaren helburua da Euskal Herriko eta Akitania Berriko sortzaile eta kultur eragileen arteko mugaz gaindiko harremanak eta lankidetzak sustatzea.

Egonaldia zabalik dago ikerketa eta praktika mota guztietarako, diziplina, formatu edo ikuspegi mugarik gabe. Bere ingurunearekin hitz egingo duten proposamenak aurkezteko gonbita egiten da; hain zuzen, ikerketak garatzen diren testuinguru natural, sozial eta materialarekin loturak sortzeko pentsamendu moduan ulertuz. Gai edo diskurtso jakin bat sustatu baino gehiago, egonaldiak topaketarako, hausnarketarako eta esperimentaziorako gune bat eskaini nahi du, orainaldian egoteko, pentsatzeko eta sortzeko modu desberdinak aztertzeko.

NORI ZUZENDUTA

- Uharte Arte Garaikideko Zentroan egonaldia egin nahi duten Akitania Berriko artista plastiko eta ikusizkoentzat.
- Zèbra3n egonaldia egin nahi duten Euskal Herriko artista plastiko eta ikusizkoentzat.

Deialdia artisten kolektiboei irekita dago, baina finantza- eta logistika-baldintzak berdinak izango dira kolektibo bat hautatuz gero.

DATAK

Izena ematea 2025-11-07tik 2025-12-05era arte zabalik.

Emaizten iragarpena: abenduan.

Bi egoitzak 2026ko martxotik maiatzera bitartean egingo dira eta 6 asteko iraupena izango dute.

ESKAINITAKO BALDINTZAK

- Egonaldia egingo den lekutik gertu ostatua ematea.
- Lan-estudio bat egonaldia egingo den lekuan.
- Zèbra3 eta Uharteko Arte Garaikideko Zentroko taldearen laguntza.
- Lurraldea eta bertan lan egiten duten artistak ezagutzeko erraztasunak eta sareak.
- 800 € dieta gisa.
- 500 € bidaia-poltsa gisa.
- 2.250 € ordainsari gisa.

**Kolektiboen kasuan, finantza- eta logistika-baldintzak berdinak izango dira.*

EBALUAZIO BATZORDEA

Hautaketa-epaimahaia batek hautatuko ditu proiektuak. Honako hauek osatuko dute epaimahaia:

- Erakunde antolatzaile bakoitzeko ordezkari bat.
- Peio Aguirre arte kritikaria, komisario eta editorea.
- Elsa Oliarj-lnes zinegilea.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

Epaimahaiak honako irizpide hauen arabera ebaluatuko du proiektu bakoitza:

- Ikerketa-proposamenaren kalitatea eta originaltasuna.
- Artistaren edo kolektiboaren ibilbidearen koherentzia.

ESKAERAK BIDALTZEA

Eskaera bat aurkeztu nahi duten artistek esteka honen bidez egin beharko dute: [eskaera esteka](#)

Eskaera jaso dela berresteko mezu elektroniko bat bidaliko da.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Dokumentu bakar batean erantsi behar da, PDF formatuan (izena_apellido.pdf, gehienez. 5 mb) honako hau barne hartzen duena:

- Datu pertsonalak:
 - Izen-abizenak.
 - Helbide osoa.
 - Telefono-zenbakia.
 - Posta elektronikoa.
 - Jaioteguna.
- Eskatzailearen curriculum vitae. (1 orrialde)
- Eskatzailearen jardunari buruzko informazioa ematen duten irudiak eta testuak biltzen dituen portfolioa edo dossier artistikoa. (10 orrialde gehienez.)
- KOMETAK egoitzan egin nahi den ikerketa-proiektuaren proposamena. (1.500 karaktere gehienez.)

Eskabideak euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez aurkeztu behar dira.

***Garrantzitsua:** ez dira baloratuko eskatutako dokumentazio guztia aurkezten ez duten proiektuak.

HAUTATUTAKO PERTSONEN KONPROMISOAK

Deialdi honetara aurkezteak berekin dakar oinarri hauek eta konpromiso hauek onartzea:

- Egonaldiak irauten duen bitartean dagokion egoitzan egotea eta proposatutako topaketetan parte hartzea.
- Proiektuari buruzko azken memoria eta egonaldiari buruzko ebaluazioa aurkeztea, proiektua amaitu eta hurrengo bi hilabeteetan.
- Proiektuari buruzko komunikazioetan erakunde hauen logotipoak sartzeko: Etxepare Euskal Institutua, Uharteko Arte Garaikideko Zentroa, Zébra3 eta Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea.

Erakunde antolatzaileen deskribapen laburra:

Etxepare Euskal Institutua

Lurralde baten nortasunaren erakusle bikaina da sorkuntza, eta bere mugetatik kanpo aniztasunari egiten dion ekarpenean sinetsita gaude Etxepare Euskal Institutuan, baita bere balio eraldatzailean ere. Premisa horretatik abiatuta euskal kultura nazioartean sustatzen dugu, betiere beste kulturekin elkarriketan.

Euskal eszenako eta atzerriko sortzaile, eragile eta erakundeen arteko elkarlana bultzatu eta babesten dugu, epe luzeko lankidetzara iraunkorrak jomuga. Euskal sortzaile eta kultur eta sormen sektoreko profesionalak mundu osoan barrena dabilzan arren, Eusko Jaurlaritzak estrategikotzat identifikatutako lurraldeei modu berezian erreparatzen diegu.

Gure nahia euskal artista eta sortzaileei, eta kultur eta sormen sektoreko eragile, profesional, eta erakundeei, nazioarteko eszenara gerturatzen eta harekin konexioan jartzen laguntzea da.

<https://www.etxepare.eus/eu>

Uharte Arte Garaikideko Zentroa

Uharte Zentroa arte garaikideko sorkuntza, ikerketa eta esperimentaziorako gune publikoa da. Artisten, kultur eragileen eta herritarren arteko topaleku gisa sortua, ekoizpen artistikoa, pentsamendu kritikoa eta jakintzen trukea bultzatzen dituzten prozesuak bultzatzen ditu.

Ikuspegi ireki eta kolaboratibo batetik, egoitza-, prestakuntza- eta sorkuntza-programak sustatzen ditu, bai eta praktika artistikoak lurraldearekin eta komunitatearekin lotzen dituzten proiektuak ere, Espainiako Estatuan arte garaikidearen erreferente gisa sendotuz.

Zentroak egoitzak, erakusketak, tailerrak eta topaketak antolatzen ditu, profesionalen, erakundeen eta herritarren arteko ezagutza-trukea sustatzeko. Halaber, artistei laguntzen die beren lanen ekoizpenean eta praktika artistikoen iraunkortasuna bultzatzen duten lan partekatuko testuinguruak sortzen.

Bere azpiegiturek — lantegiak, lan-espazioak eta esperimentazio-eremuak — proiektuak hainbat formatutan garatzea errazten dute, artea pentsamendu garaikidearekin, lurraldearekin eta egungo bizimoduarekin lotzen duen sormen-komunitatea artikulatuz.

<https://www.centrohuarte.es/>

Zébra3

Zébra3 Bordelen egoitza duen arte garaikidearen hedapenean eta ekoizpenean diharduen elkarte da. Ikusizko arteen sektorearen profesionalizazioan parte hartzen du eta artistentzat bere lanaren esperimentaziorako eta ekoizpenerako lekua da, artisten karrerak eta eskualdeko eszenako lanbideak eraikitzen lagunduz.

Zébra3 erakusketak diseinatu eta antolatzen ditu, eta ekoizpen egoitzak eta truke artistikoak garatzen ditu.

Artistei eta babesleei laguntzen die obrak, erakusketak, ekitaldiak, enkargu publikoak edo proiektu arkitektonikoak ekoizteko proiektuak egiteko faseetan.

Esperientzia espezifiko hori zura, metala eta zeramika lantzeko ekipatua dagoen ekoizpen profesionaleko 500 m2-ko tailer batean gauzatzen da. Tailer honetako jarduerak ekonomia sozial eta solidarioaren esparruan kokatzen dira, erabat, sektoreko artisten ordainsarien problematikei eta, oro har, arte garaikidearen ekoizpen-lekuen dinamikari erantzunez.

www.zebra3.org



Antolatzaileak:



Kofinantzatzailea:

